



HEMEN ERE BADUZU LEKUA

Etorkinak diren pertsona gay, lesbiana
eta transexualen gizarteratzea
bultzatzeko jarduketa-protokoloa.

ALDARTE

K/ Berezalegi, 3 - 5., o.º eta 6 - 9
Abando metro geltokia
48001 Bilbo
Telefonoa: tel. 428 72 66
aldeak@aldeak.org
www.aldeak.org



Elkartea erregistratua da, Nafarroa Garaiko
Legearen arabera, Nafarroa Garaiko Legearen arabera.



2008ko azaroa

Egileak: Inmaculada Mujika.

Lege registroa: BI-3593-08



JARDUKETA PROTOKOLOA

Esku artean duzun txosten honek jarduketa-protokolo bat proposatzen du, gizarte eragileek beren eguneroko zereginen artean joera homosexualak eta genero-identitatea kontuan har ditzaten eta, hala, etorkinak diren gayak, lesbianak eta transexualak bere horretan onartuak eta aitortuak izan daitezzen.

Etorkinekin lanean dihardugunon artean elkarlana eta lankidetzaz bultzatu nahi dugu, hain zuzen ere, etorkinei arreta osoa eskaini ahal izateko. Beraz, protokolo honen helburua da, bestelako herrialdeetatik datozen pertsonak ongietorriak sentitzea, baita gay, lesbiana eta transexualak izanda ere.

Nolanahi ere, protokolo hau ez da eskema itxi bat, baizik eta gidalerro gisa aurkeztzen dugu, oinarri edo ardatz batzuk izan ditzazun eta, horrela, pertsona horien errealitateara gertura zaitezten. Lan-tresna ona izatea espero dugu.



NOLA JARDUN?

EZ USTE HETEROSEXUALITATEA ZERBAIT UNIBERTSALA DENIK; gogoan izan sexu-aniztasuna dagoela; ez zaitezela surreiritzilen mende bizi. Gayak, lesbianak eta transexualak beren izatea lotsarik gabe agerikoagoa egin behar duten moduan, elkartetako eragileek gogoan izan behar dute askotariko sexu-joerak eta genero-identitateak daudela.

- Ez eman jakintzat aurrean duzun pertsona heterosexuala denik, nahiz eta pertsona hori ezkontuta dagoen edota seme-alabak dituen.

- Ez pentsa zuregana joandako pertsonak berak aitortuko dizunik homosexuala edo lesbiana dela, askotan larritasun handiz aitortzen baitute halakorik. Egizkiozu galdera irekiak eta zabalak, esate baterako: Baduzu bikoterik?, Zein da zure mutil- edo neskarlaguna?...zentzu horretan, ondo legoke, hala behar balitz, arreta-guneetan informazioa jasotzeko erabiltzen diren galdetegiak moldatzea.

- Egoerak sexu-joeren gaia zuzenean ukitzen uzten ez badu, ondo legoke bestelako kontzeptuak erabiltzea, esate baterako, "bikote" hitza erabiltzea "senar" beharrean, edota are zabalagoak diren beste batzuk (adib.: lagun).

SEXU JOERAZ GALDETZEAGATIK ez zara pertsonen intimitatean edo bizitza pribatuan sartzen ari. Sexu-joera eta genero-identitatea bizitza publikoaren zati bat da eta zuzenean dago pertsona horrek bizi duen gizarteratze-mailarekin lotua (lan-egoera, administrazio eta lege mailako egoera) eta ez zara intimitatea hausten ari, baldin eta gai horien inguruko informazioaren bila bazabiltza.

- Tabua saihestu eta etorritako pertsonen sexu-aniztasuna onartzeko modu bat da zuzenean eta modu irekian galdetzea zein den beren sexu-joera eta genero-identitatea, bestelako galderak egiten diren modu berean, hala nola, nola iritsi diren, hemen familiarik baduten, ezkondurik dauden edota seme-alabarik duten.

- Garrantzitsua da modu irekian galdetzea bikotea gizonezkoa ala emakumezkoa den. Horrela, pertsona horren

inguruko informazio guztia izango dugu eta erabateko arrata osoa eman ahalko diogu.

LEGE ETA GIZARTE MAILAKO AURRERAPENAK IKUSITA, EZ PENTSA PERTSONA BATEN HOMOSEXUALITATEAK ARAZOAK EKAR EZIN DITZAKEENIK. Argi dago Kode Zibila berritu zenez gerotik eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak baimendu direnez gerotik, pertsona lesgay askoren bizitza erraztu egin dela. Baina, oraindik ere, aurreiritziz beteriko jokabide eta jarrera ugari dago gure artean, pertsona horien existentzia zailtzen dutenak.

- Badira bazterketa-egoerak, eta horien aurrean ez da beste aldera begiratu behar. Ez gutxietsi homofobiaren eraginak eta, gogoan izan, lege mailako aldaketek ez dituzte gizarte mailako aldaketak berehalakoan eragiten.

- Kontuan izan, pertsona batek bere sexu-joera zein den aipatzen ez badu, baliteke haren kulturako aurreiritziengatik izatea.

- Etorkinak diren LGTB biztanleek ezaggarri bereziak dituzte eta zein diren jakin behar dituzue: batez ere etorkinez inguratutako giroan bizi dira eta, giro horretan ere, bakartuta; besteen mesprezua jasotzeko beldur izaten dira etab.

GENERO IDENTITATEARI DAGOKIONEZ (GIZON EDO EMAKUME SENTITZEA), EZ EGIN KASU KANPOKO ITXURARI AURREAN DUZUN PERTSONA GIZON EDO EMAKUME TRANSEXUALA IZAN BAITAITEKE.

- Beharrezkoa izanez gero, inprimakian sexuari edo generoari dagokion laukitxo bat bete aurretik, galdelozu noia sentitzen den, gizona ala emakumezko.

- Aurrean duzun pertsonak gizon dela esaten baduzu eta zuk emakume bat ikusten baduzu (edo alderantziz), ez zaituz larritu, eta pentsa ezazu transexualitatea egon badagoela gure artean ere.

- Aurrean duzun pertsona transexuala baldin bada, garrantzitsua da galdetzea zein izenez deitzea nahi duen, mortasun agiri ofizialean agertzen den izena dena delakoa izanda ere. Kontuan izan elkarrizketan erabiltzen duzun generoak (gaztelaniaz "el" edo "ella") bat etorri behar duela darabilzuen izenarekin.

KONTUAN IZAN GAUR EGUN TRANSEXUALITATEA BAZTERTUAGOA DAGOELA LESBIANISMOA ETA HOMOSEXUALITATEA BAINO. Pertsona transexualen arazo handia izaten da bakardade handiaz bizitzen dutela prozesu osoa. Alderdi hori gogoan izan beharrekoa da eta kontuan izan behar da zailtasunak izaten dituztela transexualak diren bestelako pertsonekin harremanak izateko.

- Baliteke etorkinak diren pertsona transexualak egoera oso zailak bizitu izana beren jatorrizko herrialdeetan (bortzaketak eta sexu-indarkeria edota jazarpena eta erasoak etengabe). Oso garrantzitsua da aukera hori kontuan hartzea, gauzak hala badira, asiloa eskatzeko aukera baitauket. Beraz, halako kasuren baten aurrean bazaude, Europan halakorik lortzea zein zaila den jakin arren, proposatu eta azaldu nola bete behar duen asilo-eskaera.

- Auto-hormonazioak osasunarentzako bigarren mailako ondorio larriak dauzkala azaldu behar zaie eta arriskutsua dela, hormona-dosi altu bat edota administrazio txar bat egiten bada.

- Euskal Osasun Sistema Publikoaren eginbeharren artean

beren beharrez arduratzea ere badagoela jakinarazi behar zaie. Ondo legoike, beraz, hormonazio-prozesurako, diagnostikerako nahiz jarraipen medikoa egiteko, osasun sistema publikora jo dezaten.

- Genaro-identitateari buruzko Legea (martxoaren 15eko 3/2007 Legea) Erregistro Zibilean eta, beraz, agiri ofizialetan izena eta sexua aldatzea baimentzen duena, ez da aplikagarria etorkinak diren pertsonen kasuan.

KONTUAN IZAN LESBIANISMOAK BADUELA GIZONEZKOEN HOMOSEXUALITATEAK EZ DUEN BEREZITASUN BAT. Emakume lesbiana baten esperientzia ez da gay den gizon batek duen berbera. Emakume lesbiana ez da gizon gaya bezain nabarmena gizartean, eta horrek zailtasun gehiago eragiten dizkie emakumeei beren joerak beldur gabe aitortu ditzaten eta, batez beste, urte gehiago behar izaten dira lesbianismoa positiboki onartzeko. Horrenbestez, ondo jardun nahi badugu, ez ditugu bizipenak homogeneizatu behar, eta berezitasunak landu behar ditugu.

- Kontuan izan honako alderdi hau: baliteke, emakumezkoen sexualitateari buruz dauzkagun ideiak kontuan hartuta, errazago sinestea heterosexualitatea zerbait unibertsala dela, aurrean duzun pertsona emakumezkoa baldin bada eta, batez ere, emakume horrek esaten badizu ezkondua dagoela eta seme-alabak dauzkala.

- Pentsa ezazu bi aldiz, baliteke aurrean duzun emakumearen bizipen lesbikoaren inguruan pentsatzen duzuna baldintzatuta egotea emakume horrek seme-alabak edota senarra daukalarako eta, hala bada, hiltz egin galaren inguruan pertsonarekin.

LESBIANAK, GAYAK ETA TRANSEXUALEK OSATUTARAKO ELKARTEAK GIZARTEKATZE PROZESURAKO ETA GIZARTE PARTAIDETZARAKO GARRANTZITSUAK DIRA, BERAZ, EZINBESTEROK SA ALOR KONETAN GAUDRACUN BALIABIDEAK ERABILITZEA. Azken batean, mota hauekako elkarterien pertsona gay, lesbiana eta transexualek alde egiteko den lana bestelako alorretan egiteko den lanaren osagarri izango da eta, hala, errotara, erbitzua hobekia emango balakia eta beren burua-kaltatea hobea izango da.

- Aurpean pertsona gay, lesbiana edo transexuala baldin badaukete jure zerbitzuen erako, biziak ezazu LGBT elkarbeteak, halakorlan beren sexu eta genero (jone berako pertsonekin jarriko balira) harrimaneetan eta zehaztasun handiagarekin jokatuko dira beren arazoak.

- Garrantzitsua da jure berria edo probintzia dardun LGBT baliabideen berri izan dezazun eta horien berri eman dezazun.

JAN ZAITEZ HARREMANETAN ALDARTE ELKARTEAN LAN EGITEN DUGUNDORIN ETA EGIN EDOZEIN GALDERA EDO KONTSULTA, EDOTA SAR ZAITEZ WEB ORRIAN, SAIAREN INGURUKO HAINBAT DOKUMENTU AURRITURAKO GITUZ.

Hartu parte "HEMEN BADUZU LERUA" foroa gure web orrian sartuta: www.aldarte.org

Immigrazioari eta leuzianismoari, Homosexualitateari eta transexualitateari buruzko eztabaida eta gozopeta egiteko sartua. Parte hartzeko gozop duen edonorentzat daigo zabalik.